

Andramaixak • Aretxabaleta

Azkeneko uneak aprobetxatuz

Festei agur esan aurretik, bi egun luze geratzen zaizkie oraindik aretxabaletarrei, parranda egiteko

Andoni Arana | ARETXABALETA

Andramaixei aurtengoz agur esan aurretik, oraindik beste bi egun luze igaro beharko ditugu. Azkeneko eguna, abuztuaren 17a, koadrilei zuzendutakoa dugu. Aurreko hiru egunetako parranda eta nekeak gainean eramango ditugun arren, jaiei agurra emateko egun aproposa dugu, beraz.

Azken egun hori ere herriko txistulariekin emango zaio hasiera. Segidan, sokamuturraren txanda izango dugu. Durana kalean, lauzpabost zezen ibiliko dira, gora eta behera, herriko toreatzaileen gozamenerako. Ipurdiko batzuk jaso eta ordu bete beranduago, Hankagorri taldeak *Urbasako astronautak* antzezlan eskainiko digute, tarteka haurrek parte hartzeko muduko jolasak uztartuz. Ordu-rako, herriko kaleetan koadrilen dantza eta algara nabarmena izango da. Aurreko egunetako ajeak bazterrean utzi, eta azken egun honi heltzeko asmoz aterako dira kalera.

Herri bazkari ederra egingo da, festa giroan

Eguerdian, azken urteotan bezala, paella erraldoia eta *te de los puertos* jateko aukera izango dugu, herriko plazan. Azken eguneko paella bazkari hori ohitura bihurtzen ari da herriko festetan; izan ere, herritarren artean oso harrera ona izaten du. Bazkal ostean, giroa animatzeko asmoz, jolasak egingo dira herriko plazan: zaku lasterketak, patata dantza... Joko horiek koadrilen sari banaketarako puntuagarriak izango dira. Ondorioz, lagun taldeei ez zaie aitzikiarik faltako jokoetan fin ibiltzeko.

Arratsaldeko 17:00tik aurrera, Jatorrena txarangari egoki-



GARI GARAIALDE

Hankagorri antzerki taldeak *Urbasako astronautak* lana eskainiko du.

tuko zaio kaleak animatzeko ardura. Sokamuturrerako beroketa saioa egin eta gero, berriro ere zezenen txanda iritsiko da, arratsaldeko 18:00ak aldera. Zezenetan ere, koadrilek paper polita betetzen dute.

Izan ere, bazkal osteko betekadaren ondoren, inoiz baino ikusgarriagoak izaten dira toreatzaileen itxura eta lasteraldiak.

Ilunkaran, jaiak aurrera jarraituko du oraindik ere. Kaleak

animatzeko ahalegin horiek eskertuz, koadrilek ere itxurazko diru sariak jasoko dituzte. Beraz, Mariachi Huapango eta Iratxo taldeen jaialdian, zenbaitek udalaren kontu edan eta jango du, rantxerak eta korri-

doak entzuten dituzten bitartean.

Uste baino lehen amaituko dira aurtengo andramaixak. Beraz, azken egunera arte itxoiten egon gabe, jaiki eta goazen kalera. Aupa Andramaixak!

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S.A.
Pabilioi Industrialen sustapena eta eraikuntza
Basabe poligonoa E 0-10 Tf.: 943 79 62 80 20550 Aretxabaleta

URKULU, S.L. Hornidurak
Mitarte, 23 20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 96 66 Faxa: 943 77 10 33

EGUZKIGRAF INPRIMATEGIA
● LIBURUAK ● ALDIZKARIAK ● KATALOGOAK ● MERKATAL INPRESOAK ● FILMATZE ZERBITZUA
Basabe poligonoa - Tel.: 943 79 29 41 Faxa: 943 79 18 44 - ARETXABALETA

ZARAIA Goizeko 5,30etatik zure zerbitzura
Araba etorb. ARETXABALETA ☎ 943 79 88 95

MAPFRE ASEGURUAK
Errekabarren, 3 Tel.: 943 71 17 34 ARETXABALETA

URBALTZ TABERNA Euskal Presoak Euskal Herrira
Mitarte, 19 - ARETXABALETA

UNZUE S.A. Felix Pagaldai Izurategi
Deba bailarako UNZUE Pentsuen banatzailea
Mitarte 7 behe - Tel.: 943 77 00 33 (Billegia) ARETXABALETA (Gipuzkoa)

Nafarroa etorbidea, 9 Santa Krutz, 25
Tel.: 943 71 24 25 Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 22 98 Faxa: 943 71 21 19
20500 ARRASATE 20550 ARETXABALETA
MEMESA INDUSTRI HORNIDURAK

IOSU HARATEGIA KROISATEGIA PLATER KONBINATUAK
MITARTE, 1 • Tel.: 943 77 03 08 ARETXABALETA (Gipuzkoa)